



### 3 UDALBATZARRA

#### Ohiko udalbatzarrean eztabaidatutako gai guztiak, onartuta

Sei puntu zeuden eztabaidatzeko astearteko plenoko gai zerrendan, baina bost izan ziren azkenean, PSE-EEK atzeratu egin zuelako Antonio Mercero museoa egitera bideratutako espazioari buruzko mozioa. PSE-EEko Nerea Artamendi eta Iñaki Mugika eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri ez ziren joan udaletxe zaharreko pleno aretora.

### 5 GARAPEN AGENTZIA

#### Buruntzaldeako alkateek proiektua aurkeztu dute

Buruntzaldea da Garapen Agentzia Integralik ez duen eskualde bakarra, oraingoz. Proiektua aurkeztu zuten Buruntzaldeako alkateek (Urnietako Mikel Pagola ez zen bertan egon) asteartean. Adierazi zuten Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik etorritako dirulaguntzak ari direla kudeatzen orain; eskualdeko sei udaletxeetara eramango dute proiektua datozen asteetan, gainontzeko alderdiek babestu dezaten. PSEk, ordea, asteazkenean esan zuen ez datorrela bat egitasmoarekin.



## Euskara ospeletik eguterara

Hizkuntzak Lasarte-Orian bizi izan zuen zapalkuntza kontatu dute

Euskarak hiztunak galdu ditu azken mendeotan, euskara hitz egiten den eremua murriztu egin da eta hizkuntza transmisioaren katea haustear izan da hainbatetan, batez ere frankismo garaian. XX. mendean euskarak jasan zuen atzeraldia ulertzen saiatzerakoan, ezinbestekoa da hizkuntza indarrez desagerrarazteko erabili zituzten neurriak azterzea.



Imanol Lizardik, Juanita Kastresanak, Miren Zubeldiak eta Itziar Camareroek euren garaiko testigantzak eskaini zituzten.

**G**erraostean bizitakoak herritarrei azaltzeko Imanol Lizardik, Juanita Kastresanak, Miren Zubeldiak eta Itziar Camareroek euren garaiko testigantzak eskaini zituzten asteazkenean.

Lasarteoriatarren bizipenak entzun aurretik, "Euskararen kate hautsiak" ordu erdiko dokumentala ikusi zuten bertaratutako 70 lagunek. Horren ostean, Dabid Anaut egileak dokumentalaren izen bera duen liburua aurkeztu zuen: "Liburuak asko erakutsi digu. Bi zati handitan banatuta dago, euskarak jasandako zapalkuntza batetik, eta eskalgintzako mugimenduen sorrera bestetik". Zati bat iluna, ospela; eta bestea argia, egutera alegia.

Euskaldunen memoria historikoa berreskuratzeko asmoarekin egin ditu Euskal Memoria Fundazioak liburua eta baita hitzaldia bera ere. Aurretik dokumentazioa biltzen eta testigantzak jasotzen lan handia egin dutela azaldu zuten, gero elkarbanatu eta garai hartan bizitako injusti-

ziak salatzen helburuarekin.

"Izan ere, euskararen zapalkuntzak hizkuntza berririk ez, jendeari berari egin dio min, izen abizenak dituzte euskaraz hitz egite hutsagatik sufritu eta umiliaituak izan diren horiek", ohararazi zuen Anautek.

Euskara zapaltzeko mekanismo errepresiboak ez ziren "indarkeriazkoak" soilik izaten, eskoletan, Guardia Zibilaren kuarteletan edo kalean gertatzen zen bezala, "mekanismo ideologikoak" ere bazeudela gogorarazi zuen Anautek: "Euskalduna baseritar munduarekin lotzen zen, kultura ezarekin. Erdara zientzia zen, erdara aurrerapena zen".

#### Herriko testuinguruan

Lasarte-Oriaren kasua ez da salbuespena izan, areago, zapalkuntza gehien jasan zuten herrietako bat izan dela diote adituek. Gerraosteko garai makurrak gogoratzeko, Imanol Lizardi, haren ama Ixiar Camarero, Miren Zubeldia eta Juanita Kastresana herriko bizilagunak bildu ziren.

Euren seme-alabak euskaraz hezteko hautua egin zuten hiru amek, hizkuntza jazarria eta zigortua zegoen arren. Hainbat anekdota eta bizipen kontatu zituzten eta publikoak ere bere ekarpenak egin zituen garaiko kasuistika zabalera errepasatuz.

Besteak beste, gaztelaniaz hitz egitera behartzen zizutenekoak, nola euren gurasoek "pello" konplejua zeukaten, baserrian bizita erdaraz trakets hitz egiten zutelako gaizki pasatzen zuten egunetakoa, harategian "ya verás este niño como habla vasco" Lizardi txikiari esaten ziotenekoa edo "a ver si hablamos en cristiano" esan eta Juanita sutzen zuten unek, erdal analfabetoak ziren gurasoak umea gaztelaniaz zuten hitz egiten entzutean hartzen zuten poza etab. izan zituzten gogoan ordubete iraun zuen solasaldian.

"Gazteei aspaldiko kontuak iruditzen zaizkie, baina guretzat atzoko gauzak dira", esan zuten.

Hizkuntzak etxe giroan, sutondoan biziraun bazuen

ere, idatzia ia erabat desagertua izan zen Lasarte-Orian. Bi lekutan izan ezik. Bi lekutan iraun zuen euskara idatziak herrian Imanol Lizardik gogoratu bezala: "Gure Etxea tabernan bazen hegazkin bat agertzen zen panel antzeko bat euskara hutsean idatzita, oraindik hor diruela uste dut eta bestea hilerriko sarreran zizelkatua zegoen, bertan 'laister esango da zuegatik esaten oi dana gugatik jilciran!' jartzen zuen".

Zorionez euskarak bizirik dirau ordea, "batzuek eutsi egin ziotelako jarraitzen du euskarak, askok eta askok hizkuntza baztertzea erabaki zuten, ondorengoei ez irakasteko hautua egin zuten. Presioa jasan zutenengatik, Ixiar, Juanita eta Miren bezalako jendeagatik bizi da oraindik euskara", esanez amaitu zuen hitzaldia Dabid Anautek.

Ttakun Kultur Elkartek, Euskal Memoria Fundazioak eta Udalak elkarlanean antolatutako ekimena izan zen, biharko Euskal Jaieren testuinguruan.

Neure kabuz



Unai Muñoa

Etorkizunari begira!

Euskal gatazka deritzaionak ez aurrera ez atzera jarraitzen du, batik bat, alde bakarrek urratsak ematea ez delako nahikoa, ez behintzat pareko lubakian daudenak ez badute keinu txikiena ere egiten. ETA-k behin betiko armak alboratzea erabaki arren, sufrimendua ez da amaitu oraindik, eta ikusi besterik ez dago, Espaniaren zein Frantziaren espetxe politikak, estatuek eragindako biktimen onarpen eza, tortura kasuak aztertzeko eta epaitzeko borondate politiko falta...

Aitortu behar dut begirunez eta inbidiaz ari naizela jarraitzen katalanen prozesu politiko-estrategikoa. Indar demokratikoen batasuna, herritarren mobilizazio gaitasuna, etorkizuna demokratikoki erabakitzeko determinazioa... Nahiko nuke gurean ere horrela balitz, baina...

Dena dela, badugu zer egin, eta are garrantzitsuagoa, badugu zer hausnartu. Atzera begiratzeak izutzen bagaitu ere, bidean ondo zein gaizki egin ditugunak aztertea eta kontuan hartzea ezinbestekoa deritzot, baldin eta aurrera egingo badugu. Horretarako garai ezin hobeak direla esango nuke gainera, orain katalanak direlako tropelaren buru, eta horrek aukera bikaina eskaintzen digu haiekiko elkartzunean, gurean hazia erin eta herri aske eta demokratiko baten bidean pausoak ematen jarraitzeko.

Badakit bizikidetzari begira asko dugula egiteko oraindik. Badakit denok onartu beharko ditugula horrenbeste sufrimenduren ardura historikoak, denok. Badakit gure auzia emozionala dela eta denbora beharko dugula iraganeko minetatik etorkizuneko ilusioa sortzeko. Baina batez ere, badakit gure herriak jakingo duela korapilo hau askatzen, eta indar politikoetatik haratago, herritarrok sortuko ditugula aske izatera eramango gaituzten bideak. Orain har dezagun arnas, iritsiko dira garai emankoragoak eta.

Zorion agurrak



Silvia

Zorionak Silvia! Muxu haundi bat munduko amatxorik onenarentzat. Besarkada bat familiaren partez.



Jokin

Zorionak jefe, Ttakuneko guztien partez besarkada bat!



Oihane

Zorionak guapa. Zurekin ospatuko dugu. Muxu haundi bat, Ibai, Eneko, ama eta aitaren partez.



Olaia

Zorionak printzesa!! 9 muxu potoloak amona, ama eta aitaren partetik!



Kenai

Zorionak maitia, 8 muxu Miguel, Alex eta Rocioren partez. Asko maite zaitugu!!



Eneko

Zorionak T-Rex galantari!!!! 6 muxu eta Grrrrr handi bat Luka, Danel eta gurasoen partetik!!



Zuhaitz

Zorionak munduko Zuhaitz politena!! 8 Besarkada handiak nere altxor preziatuenarentzat ^\_^



Iban

Zorionak ifun!!!! ondo pasa zure egunean. zure "haurren" partetik. Alex eta Naya.



Ekaitz eta Aner

Zorionak zuen 5. eta 6. urtebetetzean Malen, Maddi, Nahia eta Manexen partez!!



Xabi

Zorionak hacker! Ttakuneko guztion izenean besarkada bat galaxiako informatiko onenari.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Lan-eskaria

- Etxea garbitzeko edo adineko jendea eta haurrak zaintzeko prest nago. Alba 686 65 90 73.
- Interna moduan pertsona helduak zainduko nituzke. Esperientzia eta paperekin. 645787272.
- Umeak, agureak zaintzeko neska arduratsua eskaintzen da. Maria 630 75 14 03
- Paperak dituen gizonezkoa eskaintzen da edozein lan mota egiteko. Telefonoa: 631 15 19 94
- Pertsona helduekin, umeekin edota garbiketa lanak egiteko prest. Azucena 669 93 10 26.
- Neska lan bila externa edo interna moduan pertsona nagusiak edota umeak zaintzen edo

garbiketetan. 604 11 71 67

- Gizon nagusiak edota tabernan lan egiteko mutila prest. 943 36 51 49
- Emakumea eskaintzen da orduka etxeetan edo jendea zaintzen goizez lan egiteko 656 580 558

Salerosketak

- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Garajea saltzen da erdialdean, Super BMn. 610 73 32 64 / 600 41 43 31
- Garaje itxia alokatzen da Nagusia 69 zenbakian. 70 euro. 943 57 59 64

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ibai de la Calle Esmeraldas urriaren 13a.
- Dimiter Petrov Hristozov urriaren 10a.
- Ariane Juarez Vilchez urriaren 9a.
- Martin Lopez Manrique urriaren 7a.



Heriotzak

- M<sup>a</sup> Antonia Marinas Gabirondo urriaren 13an, 86 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 12**  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Larunbata, 13**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 14**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 15**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Asteartea, 16**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteazkena, 17**  
Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521
- Osteguna, 18**  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak


- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Muntteri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## UDALA

## Ohiko udalbatzarra asteartean

## Eztabaidatutako bost gaiak onartu zituzten alderdi politikoek

Ikasturteko bigarren plenoa egin zuten astearte arratsaldean herriko udaltxeko ordezkariak. Sei gai zeuden guztira zerrendan; horietatik bost onartu ziren. PSE-EEK erabaki zuen Antonio Mercero museoari buruzko mozioa atzeratzea. 18:30ean hasi zen eta 19:45 inguruan bukatu. PSE-EEko zinegotzi Nerea Artamendi eta Iñaki Mugika eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri ez ziren udaletxe zaharreko pleno aretora joan. Mozioak, aktak, erreparoa... gai desberdinak astearteko udalbatzarrean.



Asteartean burutu zen ohiko udal bilkura.

ez dela legala. Lizarragak erantzun zion eskubide hori Nazio Batuen Gutunean jasota dagoela eta Kataluniak erabaki behar duela zer egin nahi duen bere buruarekin.

EAJren bozeramaile Estitxu Alkorta ere hartu zuen parte gai horretan. Eskozian berriki egindako erreferenduma jarri zuen eredutzat, eta Velezi galdetu zion ea zergatik ez den posible Espainian horrelako prozesu bat burutzea.

Aurrera atera zen mozioa, aldeko 7 bozkarekin (Bildu eta EAJ), aurkako 5ekin (PSE-EE eta PP) eta 2 abstentziorekin (LOHP).

**Kanonaren ordainketa**

Kataluniakoaren ostean beste mozio bat aurkeztu zuen EH Bilduk. Liburuen maileguengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uzteko eskatu zuten. EAJ eta PSE-EEko bozeramaileek, Estitxu Alkorta eta Jesus Zaballosek adierazi zuten bat egiten zutela mozioarekin, bigarren puntuan izan ezik. Puntu horri zuzenketa bat egitea adostu

zuten alderdiek, eta gero puntuka bozkatu zuten. Onartua izan zen mozioa.

**PSEren mozioa atzeratuta**

Zerrendako bosgarren puntua PSE-EEK Antonio Mercero museo egiteko espazioari buruzko mozioa zen. Jesus Zaballosek ez zuen irakurri, ordea; esan zuen atzeratu egingo zutela, Ttakun Kultur Elkarteak espazio horretarako zeukan proiektua ezagutu arte: "Ez genekien Ttakun KEk espazio hori erabiltzeko egitasmo bat zuenik. Haiekin bilduko gara proiektua ezagutzeko; gero erabakiko dugu zer egin. Era berean, Udal gobernari eskatu nahi diot erabakiak hartzerakoan gainontzeko alderdi politikoekin kontsultatzen".

Udaleko kontu-hartzaileak gaur arte bideratutako erreparoa aztertu ziren gero. Onartuta geratu ziren.

Ondoren, alderdi politikoek eta herritarrek galderak plazaratu zituzten; galdera horiei zegozkien erantzunak eman zituzten alkateak eta hainbat zinegotzik.

## ARTEA

## Antxota artista elkartearen bilera irekia datorren asteartean

Antxota elkarteak lanean urte asko badaramatza ere, etapa berri batean murgildu dira disziplina ezberdinetako herriko artistak. Helburua hau da: Lasarte-Oriako artea sustatzea gain, lasarteoriarekin elkarbanatzea. Horixe da Antxotaren abiapuntua eta nahia.

Disziplina guztiak lantzen dituzte: margoketa, argazkilari-tza, musika, eskultura, idazketa, ikus-entzunezko obrak... Beraz, "ezinegon kulturala" duten herritarrak gonbidatu nahi dituzte eurekin biltzera datorren asteartean, hilaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan kultur-etxe 5. bilera gelan. Hortik aurrera, bide-orri bat markatu eta Lasarte-Orian ekimen ezberdinak egin nahi dituzte. Bilerara joan ezin duenak eta Antxotako kideekin harremanetan jarri nahi duenak bi bide dauzka: Antxotaren Facebook orria edota [antxota@gmail.com](mailto:antxota@gmail.com).

## EGUNKARIA

## Behin betiko itxi dute Egunkaria auzia

Hamaika urte eta gero, artxibatu dute Egunkaria auzia. Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak auzi ekonomikoa behin betiko ixtea berretsi du. Ondorioz, zortzi auzipetuak libre geratu dira: Joan Mari Torrealde, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Mikel Sorozabal, Ainhoa Albisu, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarena herritarra hain zuzen.

Pozik zen Furundarena lasarteoriarra erabakia jakin berrian: "Egun oso alaia da guretzat. Hamaika urteko bidea luzea izan da eta Egunkariako lankide ohiekin ospatzeko irrikaz nago". Dena den, salaketa ere egin nahi izan du balorazio bat eskatzerako orduan: "Epaiketa politikoa izan da. Ezin dugu ahaztu bidean Egunkaria itxi zutela, nire lankideetako batzuk atxilotuak eta torturatuak izan zirela, hori hor geratu zaigu, barnean", adierazi du Furundarenak. Era berean, gizartearen "elkartasun keinuak" eskertu nahi izan ditu: "Jendartearen erantzuna eta babesa hasieratik gaur arte bikaina izan da, eskerrak eman nahi dizkiet hemendik guztiei".

Epaitegiko erabakia irailaren 19rako espero zen, baina 25 egun beranduago heldu da 11 urteko amets gaiztoaren amaiera. Honenbestez, inputatuak aske geratu dira. Epaileak ez du onartu Fiskaltzak zortzi lagunontzat eskatzen zuen 128 urteko kartzela zigorra eta 221 milioi euroko isuna.

## MUSIKA

## Kontzertua eskainiko du bihar Zero Sette akordeoi orkestrak

Sasoetako Jaizkibel enparantzan bere Jai Band Street bertsioko saioa hemango du Zero Sette Akordeoi Orkestrak bihar arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Saio hauek musika kalera ateratzeko ideiarekin jarri ditu martxan aurtengo udaran. Lehendabizikoa ekainean izan zen Okendon, gero Zumaburu eta Basaundi auzotan egin zituzten emanaldiak eta printzipioz aurtengo azkena Sasoetan izango da.

## DANTZA

## Urriaren 26an Elizatze plazan saioa

Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia dela eta, urrian lekualdatu egingo dute plazadantza saioa. Okendo plazan izan beharrean, Elizatze plazan egingo da, BM aurrean.

## UDALA

## Tratu On bat hitzarmena Ostadarrekin

Udalak eta Ostadar S.K.Tk, Tratu on bat markan eta filosofian oinarrituta hitzarmena sinatu dute. Lasarte-Oria Tratu on bat marka lantzen hasi zenetik, Udalak "aurrerapauso asko eman ditu eta dagoneko bere sustapenerako zenbait elkarlan-hitzarmen sinatu ditu. Horien artean TSST, Hipodromoa eta Argia, gure udalerrian garrantzia eta eragin handia duten enpresak". Orain berriz, aldaketa "kualitativo bat" proposatzen da eta udalerriko ekonomiaren garapenean Ostadar bezalako elkarteek duten garrantzia azpimarratu nahi da.



## Gure Esku Dagoren bilera irekia

Bilera ireki bat egingo du Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak datorren asteko larunbatean, urriak 25, Villa Mirentxun. 12:00etan hasiko da bilera; aurtengo ikasturteko lehenengo ekintza izango da.

Taldeko kideek azaldu dutenez, ekaina bitarteko plana "ziriboratu" dute jada. Orain, ekimenarekin bat egiten duten herritarrekin "osatu eta partekatu" nahi du plana.

2014ko urtarrilean aurkeztu zen herriko Gure Esku Dago taldea. Hainbat ekimen



950 bat herritar joan ziren Uharte Arakilera ekainaren 8an.

egin dituzte hilabeteotan; Durango eta Iruñea lotu zituen ekainaren 8ko giza

katea izan da aipagarriena; 950 bat herritar joan ziren Uharte Arakilera (Nafarroa).

3.  
FASEA[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)**herritarrek**  
martxan en marchaGipuzkoa  
BERRIA*Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua*Informazio gehiago:  
[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuak hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,  
Biteri kultur etxean, 18:30ean**

# Garapen Agentzia Buruntzaldean

Eskualdeko udaletxeetara eramango dute proiektua datozen asteetan

Buruntzaldea da Eskualdeko Garapen Agentzia Integralik ez duen Gipuzkoako eskualde bakarra. Ez luzerako, ordea; eskualdeko sei udalek proiektu bat jarri zuten martxan duela bi urte, eta "lehenbailehen" jarri nahi dute martxan. Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik etorritako diru-laguntzak kudeatzen ari dira orain; udaletxeetara eramango dute proiektua datozen asteetan.

TXINTXARRI

**E**skualdeko Garapen Agentzia Integral bat sortzea Buruntzaldearen ekonomiaren garapenerako aurrerapauso handia izango da". Hitz horiek erabili zituzten eskualdea osatzen duten udalerrietako ordezkariak asteartean, eskuartean daukaten proiektua definitzeko.

Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan egin zuten proiektuaren aurkezpena, 11:00etan. Bertan izan ziren Astigarragako alkate Andoni Gartzia, Usurbilgo Mertxe Aizpurua, Andoaingo Ana Carrere, Hernaniko Luis Intxauspe eta Lasarte-Oriako Pablo Barrio (EH Bildukoak

denak). Urnietako alkate Mikel Pagolak (EA) ez zuen agerraldira joaterik izan.

Proiektua Buruntzaldeako sei udalek landu dute, baina Andoainek ez du gainontzeko udalerrien maila bera izango, zorpetze maila altua duelako. Arazo hori konpondu bitartean "bazkide kolaboratzailea" izango dela zehaztu zuten agerraldian.

## Lehenengo hazia, 2012an

Eskualdeko Lankidetzeta Protokolo Orokorra izeneko agiria sinatu zuten eskualdeko sei udalek 2012ko maiatzean. Hori izan zen garapen agentziaren proiektuaren "lehen hazia", agerraldian nabarmendu zuten. Agiria sina-



Garapen Agentziaren proiektua aurkeztu zuten asteartean Buruntzaldeako udalerrietako alkateek (Urnietakoa ez zen joan).

tzearekin batera hasi ziren asteartean aurkeztu zuten egitasmoaren oinarriak ezartzen.

"2012ko maiatzean martxan jarritako proiektuak aurrera egin du etengabe", adierazi zuten sei udaletako ordezkariak. Bilakaera horren baitan prestatu zuten Buruntzaldeako Enplegu Plana, hainbat erakunde eta elkarteekin elkarlanean. Eskualdearen egoera sozioekonomikoa aztertu zuten, eta arlo desber-

dinetako ildo estrategikoak eta lehenetsiak identifikatu.

Plan horrek hainbat arlotan esku hartzeko aukera eman die sei udalei: enpresen sorkuntza eta kudeaketarako prestakuntza emateko eta enpresa sortu berriei laguntzeko, besteak beste.

## Gaur egungo egoera

Udaletako ordezkariak zehaztu zuten, Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik etorritako

diru-laguntzak ari dira kudeatzen uneotan. Buruntzaldeako Udalek ere egin dute beraien ekarpena. Hortaz, "milioi bat euro baino gehiago" bideratuko dira eskualdeko hainbat alor lantzerantz.

"Datu horrek argi uzten du Buruntzaldeako Garapen Agentzia sortzearen beharra; agentziak eskualdean egiten den lana kudeatu beharko du eta, etorkizunean, egitasmoak planteatu", esan zuten.

## PSE-EE ez dator bat proposamenarekin



Buruntzaldeako PSE-EEK; EH Bilduren proposamena kritikatu zuten.

**B**uruntzaldeako alkateek asteartean aurkeztutako proposamenari erantzun zion PSE-EEK asteazkenean, Andoaingo PSEren egoitzan egindako agerraldian.

Esan zuten ez datozela bat egitasmoarekin: "Ez zaigu iruditzen EH Bilduren proposamenak Buruntzaldearen garapen sozioekonomikoaren alde egiten duenik; interes alderdikoiak ditu gure ustez. EH Bilduk bere agintepean egongo den elkarte bat sortu nahi du".

## "Bi marra gorri"

PSEren bozeramaileek zeharkatu ezin diren bi marra gorri ezarri dituzte: Garapen

agentziak izango duen figura juridikoa eta agentziako ordezkarien hautaketa.

"Proiektua bi urtez landu eta gero, presa dauka EH Bilduk; dio elkarte bat sortu behar dela eta aurrerago erabakiko dela elkarte horren figura juridikoa. Zergatik horrenbesteko presa? Hautakundeak egingo direlako hemendik 8 hilabetera?", adierazi zuten. "Guk pentsatu dugu gure proposamena: Mankomunitatearen figura, Gipuzkoako beste hainbat erakundetan bezala".

Era berean, proposatu zuten udalbatzarrean gehien-geoz hautatu behar direla agentziaren ordezkariak.

ESTREINALDIA URRIAK 18

LASARTE-ORIAN,  
MANUEL LEKUONA Kulturetxean

SECCIÓN OFICIAL  
62 DONOSTIA ZINEMALDIA  
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN  
INTERNACIONAL DE CINE

**Iasa y Zabala**

• Bihar, larunbata  
20:00etan eta 22:00etan  
• Igandean  
20:00etan eta 22:00etan  
• Astelehenean  
20:00etan

UNAX UGALDE, FRANCESC ORELLA, ORIOL VILA, JON ANZA, CRISTIAN MERCHAN, RICARD SALES, JAVIER MORA, INAKI ARDANAZ, INIGO GASTES, ITZIAR ITUNO, PEP TOSAR, SERGI CALLEJA, AITOR MAZO, DAVID PINILLA, CARLOS OLALLA, ANDRÉS GERTRÚDIX

DIRECTOR PABLO MALO, PRODUCCIÓN EJECUTIVA JOXE PORTELA, GUIÓN JOANES URKIXO

DIRECCIÓN DE FOTOGRAFÍA AITOR MANTXOLA, MÚSICA PASCAL GAIGNE, DIRECCIÓN ARTÍSTICA PEIO VILLALBA  
DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN JUANMA PAGAZAURTUNDUA, JEFA DE PRODUCCIÓN MARTA GERRIKABETIA  
SERVIDOR DIRECTIVO JOSU GONZÁLEZ, SERVIDOR DIRECTIVO IRENE GONZÁLEZ, HARITZ LETE, JOSÉ LUIS RUBIO, JENNYFER RUIZ, RAÚL LÓPEZ  
VESTUARIO SAIOA LARA, MAQUILAJA KARMELE SOLER, PELLUCONAJA ICAR ARRETA, AYUDANTE DE DIRECCIÓN AITOR VITORIA, OSCAR MARCOS  
PRODUCCIÓN DELEGADA ETE ANTZANE PÉREZ DEL PALOMAR Y ELENA GOZALO

PRODUCTORES JOXE PORTELA, ALBERTO GERRIKABETIA Y JOAN ANTONI GONZÁLEZ

LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO



## Agenda

Ostirala, 22:00etan Manuel Lekuonan



### Psikiatrikoko istorioak

Gaur "Psikiatriko bateko ametsak" antzezlana ikusi ahal izango da. Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak proposaturiko amateur programazioaren baitakoa da emanaldia. HIGA Taldearen antzezlana erotsunaren munduan murgiltzen du ikuslea psikiatriko bateko errutinaren bidez. Bertako lau erok euren beldur eta ilusioak elkarbanatuko dituzte mediku eta senideekin. Sarrerak 5,00 eurotan eskuratu daitezke oraindik. Euskal Jaiaren gitarauko ekintza da.

17ra goiz eta arratsalde eta larunbatean berriz, goizez bakarrik izango da ikusgai. Euskal Jaiaren baitako ekintza da Udalak, Ttakunek eta Euskal Memoria fundazioak antolatuta.

### Euskal Jaia

OKENDO

Larunbata 18,

9:00 Diana

9:30 Ibilbide gidatua egingo da herritik, eta honetan Miren Egizabalek egingo ditu gidari lanak. Oinatz taldekoek pres-taketa lanak egin dituzte eta testigantzak ATCKo neskek eta hainbat herritarrek eskainiko dituzte.

11:30 Txalapartariak eta bertsolariak

11:30 Kantu-Dantza jira: Herrian zehar erdigunea eta Jaizkibel plaza. Kantu jira haurren abestiekin egingo da hauek ere parte har dezaten.

14:00 Bazkaria Okendon, paella jana

16:00 Saskibaloia, futbola, esku pilota, lokotxak-sokatira... jokoak izango dira haur eta gaztetxoentzat herriko Ostadar eta Intza elkarteek antolatuta.

17:30 Okerra Harria altxatuko dute Iban Ugartemendia eta Joseba Ostolaza harri jasotzaileek

18:00 Erromeria Ezten Girorekin

20:30 Pintxo potea

22:30 Karaokea eta Gau Musikatua

23:00 Buenetxean Keizpean taldea.

### Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 25, 20:00etan

Lasarte-Oria Dantzan egitasmoaren baitan, Daniel Abreu konpainiaren "Silencio" ikuskizuna. Sarrera Interneten 5,40euro eta leihatilan, 6,60 euro.

### Lasarte-Oria

#### Ipuin-kontalaria

AMARAUN LUDOTEKA

Astelehena 20, 18:00ean

"Nolakoa naiz ni" ipuin irakurketa berezia. Sentimenduen bidaia ipuinetan barrena egitasmoaren baitan. HH3 eta HH4ko haurrei zuzenduta. Aurrez apuntatu behar da Ttakunen. Doan

#### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata, Igandea, Astelehena

"Lasay Zabala" filmaren bost emanaldi

egingo dira. Larunbatean eta igandean 20:00etan eta 22:00etan izango dira saioak eta astelehenean azken pase bat egingo da 20:00etan. Sarrera 5,90 eurokoa da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 19, 17:00etan

"Maya erlea" filma ikusi ahal izango da haurrei zuzendutako zinema saioen baitan. Sarrera 3,70 euro. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 24, 22:00etan

"El Gran hotel Budapest" filma ikusi

ahal izango da Okendo Zinema taldearen Zineforumaren baitan. Sarrera 4,70 euro.

#### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urriaren zehar Alots Arregi artista azkoi-tiarraren grabatu bilduma ikusi ahal izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 13tik 19ra

"Ospeletik egutera. Hizkuntza zapa-lkuntzaren memoria" erakusketa. 13an 18:00tik 21:00ko ordutegian, 14tik

## Herritarren txokoa

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

#### Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandean kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

#### Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

#### Txintzarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta daitezke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

#### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urriaren 24ean, arratsaldeko 17:00etan.

## Hemeroteka

### Duela 1114 ale

44 komertzioetan  
beherapenak Lasarte-Oria  
Bai! Txartelarekin

Lasarte-Oriako bederatzikomertzio berri sartu dira Lasarte-Oria Bai! txartelarekin. Orotara 44 denda daude. Txartel horrekin herriko dendarien eta txartela duten 1.000 pertsona ingururen eialtasuna bultzatu nahi du Ostadar K.F.k. Egunetik egunera ndar handia lortzen ari den txartela eskuratu ahal izateko ausoak oso errazak dira: Ostadar K.F.ko bazkidea izatea eta rteko 1.500 pezetan besterik ordaintzea.

ESTABLEZIMENDUA	DESKONTUA	ESTABLEZIMENDUA	DESKONTUA
Lasarte-Kirolak	%10	El Ajuar del Bebe	%10 haur-kotxeetan
Lasarte-Oria-Kirolak	%10	Kixket	%15
Lasarte-Oria-Kirolak	%10	Garoa Natur Estetika	%10
Lasarte-Oria-Kirolak	%10		

1997ko ekainean argitaratzen zen Lasarte-Oria Bai! Ostadarrek sustatutako txartelean 44 komertzio zeudela dagoeneko. Ekimen honekin kirol elkartearen bazkideek urtean 1.500 peztako kuota ordainduta, deskontuak lortzeko aukera zuten.

Herriko denda ezberdinetan eskaintza bereziak edota deskontuak eskuratzeko zuzentzen horrela herritarrek. Bere aldetik, Kirol elkartearen biziraupenarentzat hain beharrezkoak ziren bazkidetzak lortzen zituen. Horrela 1.000 pertsonen leialtasuna bultzatu nahi zuen Ostadarrek.

Azken bederatzikomertzio berri integratzearekin batera egin zuten argazkia eta TXINTXARRI-n beherapen eta abantaila guztien inguruko informazioa. Honekin herriko dendetan merkataritza sustatzen zela azpimarratzen duten ere.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

# Egun osoan hamaika ekintza Euskal Jaian

Okerra harria Okendon izango da bihar eta hau altxatzen saiatuko dira harri-jasotzaileak

Egun handia izango da biharkoa. Iaz abiatutako biderei jarraiki, Ttakunek herriko beste elkarte eta hainbat eragilerekin batera Euskal Jaia antolatu du bigarren bezala. Aurten goizko egitaraua zabalagoa izan da eta astean zehar erakusketa eta solasdi batez gozatu ahal izan da. Gaur ere 22:00etan antzezlanak izango dira Manuel Lekuonan. Bihar berriz, jaia goizeko 9:00etan hasiko da eta goizaldeko ordu txikiak arte iraungo du Okendo plazan. Sustatzaileek herritarrek parte hartzerantz deitzen dituzte, baita baserritarrez jantzita etxetik ateratzera ere.

## TXINTXARRI

Euskal Jaia izango da bihar egun osoan zehar Okendo plazan. Garai batean herrian egiten zen jaia berreskuratu nahi izan zuten iaz Ttakunekin batera hainbat elkarte eta eragilek. Iazko arrakasta ikusita, aurten ere hainbat ekintzekin gozatzeko aukera izango da jai egun honetan.

Dianarekin esnatuko dira herritarrek goizeko 9etan. Honen ondoren, Oinatz taldeak antolatutako ibilbidea egin ahal izango da herrian zehar. Ibilbide berezia izango da hau, herriko gune jakin batzuetan atzera begira egin eta iraganen bertan zegoen mintzatuko dira hainbat herritar, ATCKo neskek tartean izango dira.

Miren Egizabalek egingo ditu gidari lanak eta antolatzatzaileek aipatu dutenez ez da aspertzeko tarterik izango.

Pasarte ezberdinak laguntzeko, argazki zaharrak ere prestatu dituzte. Ezustekoak izango dira eta haur zein helduak honetan parte hartzerantz animatzen dituzte.

Irteera 9:30ean izango da Okendo bertatik.

Jarraian, 11:30ean plaza giroten lagunduko dute txalaparta doinuek eta bertsoek. Unai Muñoa eta Patxi Larrañaga arituko dira.

Okendotik kantu-dantza jira abiatuko da 11:30 aldera herrian zehar, erdigunean eta Jaizkibel plazan geldituz egiten. Kantu jira umeen kanteekin egingo da hauek ere parte har dezaten, familian gozatzeko ekintza dela azpimarratzen dute antolatzaileek.

Hau bukatzerako, paella prest egongo da Okendon. Bertan bazkaltzeko, aurrez txartelak hartu behar dira Ttakunen edo Jalgin. 6 eurotan daude salgai eta 200 lagu-



Okerra harria plazan ikusi ahal izango dute herritarrek. Aurten Joseba Ostolazak eta Iban Ugartemendiak altxatzen saiatuko dira.

nentzako lekua dago aurreikusia.

Bazkalostean animazioa egongo da eta 16:00etan hasiko dira jokoak plazan bertan. Saskibaloia, futbola, esku-pilota eta beste herri jolasetan aritzeko parada izango da, lokotxak edota sokatira bezalakoetan. Hauek edonork parte hartu ahal izango du, haur, gaztetxo zein heldu.

## Okerra harria

Aipatzekoa da iaz ikusmin handia sortu zuen Okerra harria hemen izango dela berriz ere. Hau altxatzen bi

harri-jasotzaile saiatuko dira 17:30 aldera.

Iaz Joseba Ostolazak 140,2 kiloko Okerra harria bizkarrean berdintzea lortu zuen. Bost minutuko tartean zazpi aldiz jaso zuen irristakorra eta heldulekurik gabea den harri maltzurra.

30 urteren ostean plazara ateratu zen berriz iaz Okerra harria eta bertan egon zen Jose Ramon Arteaga, 80ko hamarkadan 10 minutuko tartean sei altxaldi ematera iritsi zen herritarra.

Biharkoan Joseba Ostolazak errepikatuko du Okerrarekin eta honekin izango da

ere Iban Ugartemendia harri-jasotzaile hernaldearra.

## Musika eta dantza

Ikuskizunaren ondoren, festak ez du etenik izango. 18:00etan erromeria egingo da Ezten Giro taldearekin. 20:30ean Pintxo potea egiteko aukera izango da Abend, Arkupe, Buenetxea, Galiza, Sancho, Trumoi, Yolanda, Txanpa, Artizar, Gure Etxea, Ilargi, Iñaki, Insausti eta Jalgi tabernetan.

Festa giroak jarrai dezan, karaokea eta musika izango dira nagusi 22:30tik aurrera Okendon.

## Psikiatriko bateko istorioak oholtzan

Manuel Lekuona kultur-etxean izango da gaur "Psikiatriko bateko ametsak" antzezlanak. Hau aurkezteko agerraldia egin zuten Kukuka, Udala eta Zurriola Antzerki eskolako kideek. Antzezlanak Euskal Jaian egitarauaren barruan dago. Iaz ekin zitzaion programazioa amateur herriko elkarteekin lantzeari eta pozik azaldu ziren lortutako emaitzarekin. Joserra Fatxada da HIGA taldearen zuzendaria eta agerraldian lanaren kalitatea azpimarratu nahi izan zuen: "25 urte inguruko aktoreak dira baina kontutan izan behar da, hauek asko 9 urtekin hasi zirela nirekin antzerkia egiten, ez dira profesionalak baina esperientzia handia dute". Antzezlanari



Atzo egin zuten agerraldia eta antzerkira gerturatzera animatu zituzten herritarrek.

dagokionez, jatorrizko testua Zurriolako irakasle batek itzuli zela aipatu nahi izan du Fatxadok. Moldaketa euren egin dute eta psikiatriko bateko istorio ezberdinak dira ardatz, "erotasunaren krudeltasuna erakusten da baina umore ikutuak ditu eta ondo pasatzeko antzezlanak da", azaldu zuen zuzendariak.

Esaterako, lanak Donostiako Antzerki topaketetan lehenengo saria eskuratu zuen.

Denek herritarrek animatu zituzten honetara gerturatzeko gaur 22:00etan. "Familia guztiarentzako antzezlanak da eta ikusleek ziur ondo pasako dutela". Gaur sarrerak 5 eurotan daude salgai izango dira kultur-etxean.

## Bihar, baserritar jantzia soinean

Euskal Jaia herrian urtetik-urtera errotzen joatea da antolatzaileen nahia eta jai egun honen nortasuna argi adierazteko, funtsezkoa da baserritarrez jantzita ahalik eta jende gehien kalera ateratzea.

Beste herri batzuetako Euskal Jaiekin alderatuta oso berria da hau baina Lasarte-Oria herria izan aurretik, Euskal Jaiek ospatzen zirela gogoratu



nahi dute sustatzaileek. Horregatik, Santo Tomas aurretik hitzordu berezi honetarako jantziak prestatzeko deia egiten da antolakuntzatik.

Bihar denak baserritarrez jantzita plaza betetzeko.